

Pornoari buruz hitz egin behar dugu

Nerabezaroko pornografia-kontsumoari
buruzko gida familientzat



Save the Children

Gida hau Save the Childreneko Haurtzaroari eta Sentiberatzeari buruzko Politiken Zuzendaritzak prestatu du, Daniel Santacruz psikologo eta sexologoaren gida batean oinarrituta.

Pornoari buruz hitz egin behar dugu

Koordinatzailea:

Paloma García Berrocal

Ilustrazioak:

Íñigo Navarro Dávila

Artea eta maketazioa:

Óscar Naranjo Galván

Argitaratzailea:

Save the Children Espainia
2020ko ekaina





1.º Sarrera



Nerabearoa bizitzako etapa konplexu bat da, aldaketa fisiko, psikologiko eta sozial ugari gertatzen baitira, sexualitatearekin zerikusia dutenak barne.

Nerabeak bizi diren egungo munduan, hainbat faktorek definitzen dute haien garapen sexuala, hala nola teknologia berrien aurrerapenak, sexu-hezkuntzarik ez izateak hezkuntza-curriculumean, gizarteko desorekak eta genero-indarkeriak.

Testuinguru horretan, «pornografia berria» agertzen da, eskuragarria, mugagabea, bai kopuruari bai edukiei dagokienez, anonimoa eta interaktiboa. Funtsezko alderdia da nerabeen garapen sexuarean, eragina du sexualitatea ulertzeko moduan eta haien arteko harremanetan, eta, horren ondorioz, jokabide arriskutsuak ekar ditzake.


Nerabeek pornografia kontsumitzen dute? Erreferentzia moduan hartzen dute beren harremanetan? Ikusten dutena gustatzen zaie? Pornografiaren edukian indarkeria edo desoreka dagoela pentsatzen dute? Zergatik biltzen dute? Nola aurkitzen dute? LGBTI pertsonak ordezkaturik daude? Generoen arteko desberdintasunak daude? Nahikoa da haien jasotzen duten hezkuntza afektiboa eta sexuala? Gehiago jakin behar dutela uste dute?


Horiek dira Save the Childrenen egin ditugun galderak, errealitateari taburik gabe aurre egiteko eta haurren beharrei egokiturako erantzunak emateko, hala, haur eta nerabeen ongizatea eta haien nortasunaren garapen integrala bermatzen laguntzeko. Horren emaitza dira **“Sexu-(des) informazioa: pornografia eta nerabearoa”** txostena eta familiei zuzendutako gida hau.

Gida honen bidez, **gakoak eman nahi ditugu, familiek beren seme-alabei pornografiari buruzko ikuspegi kritiko eta errealista eratzten lagun diezaieten**. Horretarako, kontuan izan honako hauek:

- Gida honek pornografiar hitz egiteko gakoak eskaintzen ditu, ez erantzun zuzenak, ez eta erantzuteko moduari buruzko errezetak ere; pertsona bakoitzak bere seme-alabak hezteko estilo berezira egokitu behar ditu.

- **“Galdera zailei erantzun errazak”** gidaren osagarri bat da, familiei beren seme-alaben sexu-hezkuntza errazteko tresna bat. Sexualitateaz hitz egitea kostatu egiten zaigu, batez ere haurrekin eta nerabeekin; material honekin, komunikazio hori hobetzeko zenbait gako ematen ditugu.
- Denei zuzenduta dago, sexua, generoa, nortasuna, orientazioa, jatorria, gaitasunak, desberdintasunak, bikote motak eta familia motak kontuan hartu gabe. Beraz, ez da kolektibo jakin batean oinarrituko (pertsona guztiak eta sexualitate guztiak barnean hartzea da gure nahia).
- Edukiak ebidentzietan oinarrituta daude, baina komenigarria da gaiari buruzko ikerketa-lan handiagoa egitea.
- Ez ditu pornografiaren inguruko eztabaidak konpondu nahi, baina ezagutza hedatu nahi du, irakurtzen duten familiek eta nerabeek ikuspegi kritikoagoa izan dezaten.





9 urtetik 12 urtera:
pornoaren aurreko
lehen esposizioa eta
jakin-mina

lkerketa gehienek, baita familia askoren testigantzek ere, pornografiarekin lehen harremanak 9 urtetik 11 urtera bitartean hasten direla ohartarazten dute. Ez dira nahita egindako bilaketak izaten, eta ez dute funtsean osagai erotikorik izaten; hau da, ez da erabiltzen desira pizteko edo areagotzeko, geroago nerabezaroan gertatuko den bezala, baina hori ere gerta liteke.

Lehenik eta behin, adin hauetan, azterlan gehienek pornografiarekiko edo sexualki esplizitua den materialarekiko «esposizioa» aipatzen dute, nahita egindako «bilaketa» baino gehiago; oro har, sexualki esplizitua esaten denean gorputz biluzien eta genitalen irudiei egiten zaie erreferentzia. Adibidez, banner eta pop-up deritzenen bidez (Interneten agertzen diren leihoak), neska eta mutil nagusiak erakusten dituzten bideoak, kalean aurkitzen dituzten liburuxkak edo flyerak, filmetako, telesailetako, iragarkietako edo sare sozialetako irudiak, etab. izan daitezke.

Bestalde, adin horietako esposizioak eta nahitako bilaketak ez dira helduen arrazoi beragatik gertatzen. Askotan, haurrek tabua den gai baten inguruan duten jakin-mina ase besterik ez dute egiten, helduen munduan barreak eta beldurrak pizten dituen edo puntu eskatologiko bat duen gai baten inguruan, (4-5 urteko haurrek kaka, ipurdia eta horrelakoekin egiten duten bezala, baina nerabezaroaren aurreko garaira egokitua). Beste batzuetan, material pornografikoarekiko esposizioak taldearen presioari erantzuten dio; presio hori ikasgelako, ikastetxeko, auzoko eta abarretako neska-mutilengandik etor daiteke.

Adin hauetan, **pornoaren aurreko esposizioa eta sarbidea ez dira gomendagarriak**. Funtsean, ez delako desira erotikoa asetzeko unea, eta garapen kognitiboak ez dielako uzten ikusten ari direna erabat ulertzen, beste irudi asaldagarri, bortitz edo onartzeko zail batzuekin gerta dakiekeen bezala.

Noiz hitz egin diezaieket sexuaz?

Erantzun txarra: jada hitz egiten hasita behar zenuen. **Erantzun ona: inoiz ez da berandu sexuaz hitz egiteko.**

Ez dago sexuaz hitz egiteko adin egokirik, egunero hitz egiten baitugu sexuaz. Egunero sor daitezke aukerak zure seme-alabei sexualitatearen hainbat alderdi azaltzeko (adibidez, haurrak nondik datozen edo zergatik dau den desberdintasunak gizonen eta emakumeen artean). Haien jakin-mina

asetzeaz gain, edozein gairi buruz zurekin hitz egin dezaketela erakutsiko diezu horrela.

Askotan, nahiago izaten dugu seme-alaben galderei ez erantzun, erosoagoa delako, baliabiderik ez dugulako edo pentsatzen dugulako ez dutela ulertuko, baina harrituta geratuko zara konta diezaiekezun guztiaz jabetzean. Azken finean, haien zalantzen edo galderen aurrean isilik egotea ere sexu-heziketa da, baina ez da hain eraginkorra. Agian ez da hori transmititu nahiko zenukeena.

Nire semeari edo alabari irudi pornografikoak erakutsi dizkiote. Porno bila harrapatu dut.

Beti bezala, lehenengo planteamendua **egoerari lasai heltzea da**. Hasteko, bildu informazio gehiago, zer ikusi duen eta zer egoeratan galdetuta, zorrotza izan gabe edo jakin-nahi handiegia erakutsi gabe, portaera bat izateko azalpen asko egon baitaitezke.

Galdetu diezaiokezu, halaber, ea ulertzen duen ikusten ari zena, zer pentsatzen duen berak ikusten ari zenaz edo nola sentiarazi duen; horrela, informazio gehiago izango duzu, eta zure erantzuna hobeto landu ahal izango duzu. Saia zaitez egiten ari zena ez epaitzen edo errurik ez botatzen, honelako galderak edo iruzkinak eginez: “zergatik ari zinen hori ikusten?”, “nola bururatzen zaizu hori ikustea?” edo “horretarako nahi duzu ordenagailua?”. Horrelako galderak ez dira gomendagarriak, izan ere, defentsa-jarrera sortzen dute, errudun senti daitezke eta ez dute konfiantza-giroa sortzen laguntzen, haurrak kontatzeko aukera izan dezan eta zuk gidatzeko aukera izan dezazun.

Pornografiari buruzko informazioren bat eskaini diezaiokezu, hala nola esanez adinekoek goatzeko erabiltzen duten zerbait dela, edo ez duela irudikatzen adinekoek harremanak dituzten modua; fikzioa dela esan diezaiokezu, eta ez bizitza erreala. Janaria erabil dezakezu azaltzeko analogia on gisa; adibidez, haurrek hartu ezin dituzten elikagaiak daude, hala nola kafea edo garagardoa, eta, nahi izanez gero, helduak direnean hartu ahal izango dituzte. Elikagai batzuen erabilera neurritsua ona izan daiteke, baina gehiegi janez gero arriskutsua izan daiteke, azukrearen kasuan, adibidez. Edo azal diezaiokezu batzuetan elikagaiaren argazkiak ez duela antzik gero jaten dugunarekin, adibidez.

Une egokia izan daiteke, halaber, sexu-harremanak zer diren eta zer osagai nagusi dituzten azaltzeko, ezinbesteko elementuak daudela adieraziz, hala nola adostasuna, pertsonak ados egotea eta gertatzen ari dena ulertzea; konfiantza, bi pertsonak nahi dutenean iritziz aldatzeko libre senti daitezen; komunikazioa eta errespetua.

Bestalde, galdetu diezaiokezu ea badakien zer egin beste pertsona batzuek irudi mota horiek ez erakusteko, eta proba-saioak egin ditzakezue. Era berean, azal diezaiokezu zuregana jo dezakeela Interneten horrelako irudiak aurkitzen baditu, ezagun batek edo ezezagun batek bidaltzen badizkio, etab.

Azkenik, beharrezkotzat jotzen baduzu, jokabide horri muga bat jartzen saia zaitezke, heldu gisa duzun posiziotik: “hori oraindik ezin duzu ikusi”, “hori helduentzat da”, eta abar.

Arriskuaz ohartarazi behar dut?

Bai. Pornoak ikusteko Internet erabiltzeari buruzko azterlanek ez dute aztertzen soilik adingabeak pornografiara sartzea edo adingabeei material genitalki esplizitua erakustea, baita teknologiak norberaren edo besteen irudi esplizituak bidaltzeko eta jasotzeko erabiltzea ere (sextinga). Adibidez, mugikorren eta mezularitzako aplikazioak, sare sozialetako argazkiak eta bideoak, edo web-kamerak dituzten txatak erabiltzea asko ezagutzen ez dituzten pertsonekin edo pertsona ezezagunekin Internetez hitz egiteko (esate baterako, online joko bateko jokalaria).

Zure semea edo alaba teknologien erabileran eta datu pertsonalak babesteko eskubidean hezten hasteko unea da. Denok dakigu irudi bat biral bihurtu daitekeela gaur egun; hau da, munduko edozein lekutan dagoen pantaila batera irits daiteke, batez ere eduki esplizituak erakusten dituztenetara. Beste arrisku bat da ikaskideek edo ezagunek irudi horiek min emateko edo estortsioa egiteko erabiltzea.

Irudi pertsonala zaindu eta babestu egin behar da, eta zure seme-alabek argazkiak egiteari edo grabatzen uzteari uko egiteko beharrezko tresnak ezagutu behar dituzte (mugikorrak eta kamerek nola funtzionatzen duten jakitea, ezetz esaten jakitea, portaera salatzen jakitea eta abar).

Horrelako zerbait gertatuko balitz, konfiantzazko pertsona heldu baten-gana jo behar da (familia, irakasleak), edo agintari eskudunengana (Polizia, Guardia Zibila), beharrezko neurriak har ditzaten.

Gai horri buruz gehiago jakiteko, “**Indarkeriaren kontrako antibirusa**” gure gida gomendatzen dizugu. Gida horretan, oinarrizko ezagutzak eta tresnak eskaintzen ditugu, haurrak informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabileran hezten laguntzeko.

Guraso-kontrola erabili behar al dut?

Guraso-kontrolerako programak, aplikazioak edo bilatzaileak daude, eta haurrak zenbait orritara sartzea mugatzen dute. Inork ezin du zure ordezt erabaki, baina litekeena da zure seme-alabek zuk baino ezagutza handiagoa izatea Interneten eta IKTen erabilerari buruz. Egokia izan daiteke Internetek, sare sozialek edo aplikazioek nola funtzionatzan duten jakitea, abantaila apur bat izateko haurren aurrean.

Guraso-kontrolerako aplikazioak erabiliz gero, haurrek Interneten sexu-eduki esplizituen aurreko esposizioa izatea saihesten dute, baina iraupen jakin bat dute: lehenago edo geroago, zure alabak edo semeak material erotikoa bilatuko du nahita, edo beste batzuek erakutsiko diote. Estrategia pedagogiko baten parte izan behar du erabilerari horrek; beraz, ez luke debeku batetik abiatu behar, baizik eta azaldutako, adostutako edo negoziatutako muga batetik.

Guraso-kontrolerako aplikazioei esker arazoari ihes egingo diozu aldi baterako, baina **inola ere ez dute ordezkatzeko sexu-heziketa integrala**, bizitza osorako jarrera kritikoa garatzen irakatsiko diena.



3.-
11 urtetik 16 urtera:
nahitako bilaketa

Nerabezaroa hasten denean, haurrak helduen mundurako prestatzen dituzten zenbait aldaketa gertatzen dira, sexualitatea barne. Ez bakarrik ugaltzeko gaitasuna agertzen delako, baita iraultza emozional eta hormonal handia hasten delako, eta jakin-mina, erakarpina eta desira erotikoa sentitzen hasiko dira, lehen normalean sentitzen ez zituztenak. Era berean, garapen intelektualak aukera emango die imajinatutako egoera eta irudiekin entseatzeko: beren gorputza, harremanak eta mundua izan daitezkeen forma desberdinetan irudikatu ahal izango dituzte, eta ez diren bezala bakarrik.

Sexu-harremanei lotzen zaie hori nagusiki, hainbat egoeratan gauza daitekeen aukera gisa ulertzen baitira. Neska eta mutil batzuk harremanak izateko irrikaz egongo dira; beste batzuk ez dira prest sentituko; beste askok ez dute gai horretaz ezer jakin nahiko, edo beldurtuta sentituko dira.

Hala ere, pornoa hor egongo da, orain are eskuragarriago; izan ere, **14 urtetik gorako nerabeen % 99k Interneterako konexioa duen mugikorra dute**, eta –are esanguratsuagoa– jende guztiak hitz egingo du horretaz, helduek erabiliko dute, eta industria oso bat dago hor atzean.

Zer kontatuko diet pornoari buruz?

Pornografia zertan datzan ulertzeko duten gaitasuna lehen baino handiagoa da, eta, beraz, informazio eta material gehiago eskain diezaiekegu.

Errealitatera hurbiltzeko garaia da, eta azaldu behar diegu pornoaren eta sexu-harremanen arteko lotura zinemaren eta bizitzaren artekoaren parekoa dela: errealitatearen fikziozko irudikapena.

Azaldu diezaiekegu protagonistak antzezten ari diren aktoreak direla, casting eta entrenamendu prozesu bat egiten dutela horra iritsi arte; bideoetan erakusten dituzten sexu-harremanek genitalak baino ez dituztela erakusten, eta, egiaz, gorputz osoarekin sentitzen eta adierazten dugula harremanak ditugunean; pornoa pentsatuta dagoela pantaila aurrean orduak eta orduak itsatsita edukitzeko, baina sexu-harremanak laburragoak direla; genero-estereotipo desorekatuak betikotzen dituztela; edo pertsonok gure arteko komunikazioa erabiltzen dugula zer nahi dugun, zer gusatzatzen zaigun edo harremanak ditugunean gelditu nahi dugun adierazteko.

Pornoaren eta indarkeriaren arteko harremanaz hitz egiteko unea ere bada. Pornoan, eduki askotan gizonak bortizkeriaz jokatzeko dute inplizituki edo esplizituki beren bikotekideekin. Pornoan, ohikoak dira portaera misoginoak edo arrazistak, eta horretarako prestatuta egon behar dugu. Zuzenean ohartarazi ditzakegu porno mota horren aurrean, ondo sentiarazten ez dieten edukiak ez ikustera bultzatzen ditzakegu, jokabide horien arriskuak adierazi diezazkiekegu, horrelako edukiak salatu ditzaketela azaldu, eta pornografiako iturri etikoak edo alternatiboak eman diezazkiekegu.

Zer egin dezaket pornoa ikusten harrapatzen badut?

Lehenik eta behin, lasai egon. Gogoan izan, adin jakin batzuetan, desira erotikoa eta heldutasun sexuala esnatzeak zenbait aldaketa eragiten dituela, eta pertsonak pornora jotzen dutela beren jakin-mina asetzeko, bakarka, bikoteka edo taldean plazera aurkitzeko; erotikari eta harremanei buruz ikasteko; edo beren inguruko gainerako neska-mutilek egiten duten gauza bera egiteko. Eta ez da ezer gertatzen: arlo guztiak landu daitezke.

Ez dugu asaldatu behar: kontua ez da zure alaba edo semea epaitzea edo erruduntzat jotzea. Izan ere, jarrera alarmista ez da positiboa izango lortu nahi dugun helburu hezitzaileko, erantzun oldarkorrak eta defentsiboak eragiten baititu. Bestalde, ez ditugu genero-estereotipoak betikotu behar, eta ez dizkiegu erantzun desberdinak eman behar neskei eta mutilei; oro har, pornografiaren erabilera gehiago aurpegiratzen zaie emakumeei eta arinago jokatzeko da mutilekin.

Zer egiten edo ikusten ari zen galde diezaiokegu, zer gertatzen zen ulertzen zuen, ikusten ari zenaz hitz egin nahi duen, etab. Mugak negoziatu daitezke (adibidez, zer bideo ikus ditzakeen, zer beste aukera dauden, zenbat denbora eskaini diezaiokeen edo zer testuingurutan, eta abar).

Porno masiboaren edo pornoko joera nagusien aurrean, beste aukera batzuk eskaini daitezke, porno etikoa, adibidez; edo pornoa erabili beharrean fantasia lantzea edo beste iturri batzuk kontsultatzea proposa daitezke, adibidez (kontakizunak, aldizkariak eta abar).

Nola jorra dezaket pantailen erabilera (mugikorra, tableta, ordenagailua)?

Kasu honetan ere, arazoa ez da pornoaren erabilera soilik, baizik eta eskura ditugun teknologiak erabiltzea beste norbait edo norbera grabatzeko edota materialak bidaltzeko. Adin hauetan, ez da harritzekoa mugikorre-tik mugikorrera pasatzen diren bideoak eta irudi biralak ikustea; bestalde, grabatutako eta lapurtutako irudiak, estortsioak, profil faltsuak sortzea, nortasuna ordeztzea eta abar ere gertatzen dira adin hauetan. Askotan, familiak ez dira jabetzen haur bati Interneterako konexioa duen mugikorra inolako azalpenik edo heziketarik eman gabe edo mugak jarri gabe ematea autoa gidabaimena atera gabe ematea bezala dela.

Haurrek irudiei lotutako arriskuak ezagutu behar dituzte, eta zeregin hori hezkuntza-eragile guztiei dagokie. Eskolak zeregin hori egin ohi du (adibidez, jazarpenari eta ziberjazarpenari buruzko eskolen bidez), baina familiak zeregin hezitzaile garrantzitsua bete behar du.

Kontua ez da debekatzea, hezteka baizik. Bikotekideari, zure adixkideari edo pertsona ezagunei (haiekin zerbait izan nahi duzulako) sexualki esplizitua den materiala bidaltzea nahiko jokabide arrunta da helduen artean, eta nerabeak gazte helduak dira jada. Beraz, hezi egin beharko ditugu, eta jokabide arriskutsua dela azaldu beharko diegu, batez ere gailuaren beste aldeko pertsona ezezaguna denean edota heldua izan daitekeenean (groominga); horrez gain, haien aurrean nola jokatu erakutsi beharko diegu.

Bikote-harremanez hitz egitea komeni da, eta harreman onenek ere betiko irauten ez dutela esatea. Izan ere, oso litekeena da nerabegaroko harremanek denbora gehiegi ez irautea, eta hausturak batzuetan ondo amaitzea eta beste batzuetan ez. Askotan, bikotekide ohiek bideo esplizituak erabiltzen dituzte kalte egiteko edo mendekua hartzeko, eta arrisku hori kontatu behar diegu, aukera hori kontuan har dezaten.

Era berean, ohartarazi behar zaie, pertsona ezagunen irudi konprometigarriak jasotzen badituzte eta pertsona horren onespenez ez dutela sumatzen badute edo baldin badakite, erreferentziazko helduengana edo poliziarengana jo dezaketela egoera salatzen edo geldiarazteko. Eta azaldu behar diegu konfiantza gutxi duten edo ondo ezagutzen ez duten norbaiti argazki bat edo bideo bat bidaltzeko asmoa badute, zuhurrak izan behar dutela eta

inoiz ez deztela halakorik bidali atzean nor dagoen ez badakite; beren harreman pertsonalak zehaztu behar dituztela esango diegu, eta ez ditzatela erakutsi aurpegia edo inork ezagutu ahal izateko moduko gorputz-ezaugarriak, eta argazkiak ezabatzeko edo denbora jakin batean soilik mantentzeko aplikazioak edo funtzioak ezagutu ditzatela.

Era berean, probetxugarria izan daiteke ligatzeko teknologiaren erabilera okerrerako prestatzea (gezurra esaten duen jendea, beste batzuen plantak egiten dituenak, etab.). Gaur egun, bikote askok ligatzeko aplikazioen bidez ezagutzen dute elkar, eta, beraz, hobe da neska-mutilei azaltzea horiek nola erabili behar diren, beren kabuz eta okerreko bidetik aurkitu aurretik.





4.-

16 urtetik aurrera: erabilera eta abusua

Helduen mundura iristeak abantaila sozial batzuk dakartza, alde on eta txarrekin. Nerabe gehienak lehen sexu-harremanetan, lehen bikote-harremanetan, lehen lanetan eta abarretan murgiltzen dira. Sexu-heziketa ez da etapa horretan amaitu behar. Familia ez da bigarren mailara pasatzen, baina eragin txikiagoa izango du neska eta mutil gazteen artean, parekoekin alderatuta. Informazio- eta konfiantza-erreferente izaten jarraitu behar duzu haientzat.

Adin horietatik aurrera, maizago erabiltzen eta kontsumitzen da pornografia modu “helduagoan”. Hau da, jada ez dute hainbeste egiten taldearen presioagatik edo nerabezaroaren aurreko jakin-minagatik, baizik eta porno mota guztiak erabiltzen dituzte beren desira pizteko edo areagotzeko, bai eta sexualitateari eta sexu-harremanei buruzko ezagutza hobetzeko edo masturbatzeko ere.

Zertaz hitz egin dezaket haiekin pornoari dagokionez?

Ezagutzen ez dituzten pornoaren alderdiak azaltzeko unea izan daiteke, edo pornoaren erabilerari buruz edo atzean dauden industriei buruz duzun iritzia azaltzeko unea.

Une egokia izan daiteke harreman erotiko «errealak» nolakoak diren gogoratzeko, hau da, pornoan gehienetan aipatzen ez direnak: adostasuna, hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa, konfiantza, errespetua, zaintza eta norberaren zaintza, gorputzen eta praktiken aniztasuna, etab. Zenbait kolektibo edo berezitasun fetitxe gisa erabiltzeari buruz eztabaida daiteke (adibidez, gizon beltzak, emakume transak, emakume asiarrak, etab.), izan ere, pornoan haien irudikapena are okerragoa da.

Azal diezaiekegu ohiko sexu-harremanetan normala dela huts egitea, gogorik ez izatea, gogoia izatea, bikotekidearekin hitz egitea noiz eta nola egingo duten, gauza berriak probatzea eta horiek gustukoak izatea edo ez izatea; elkartzeko une hori prestatzea eta planifikatzea erotikoa eta sentzuala izan daitekeela; antisorgailuak erabiltzeak duen garrantzia, etab.

Nire semeak edo alabak pornoarekiko mendekotasuna duela susmatzen badut? Pornoaren mende dago? Pornoaren mende nago?

Ur handitan sartzen garen arren, **pornoak osagai guztiak ditu mendekotasuna sortzeko**. Oro har, adikzioa ez da kategoria bat; hau da, kontua ez da mendekotasuna dudan ala ez, pornoa nola erabiltzen dudan baizik.

Zalantzak ditugunean pornoari ematen dioten erabilerari buruz, portaera horri buruz ditugun zalantzak edo beldurrak adieraz diezazkiekegu, baina «kalakan aritzea» ama edo aita gisa duzun erantzukizunari lotuta doa, bai eta jokabide alternatiboak, estimulazio-iturri desberdinak eta abar planteatzea ere.

Zaila da adikzio bat diagnostikatzea, baita profesionalentzat ere, baina sintoma batzuek pornoarekin lotutako arazo bat egon daitekeela adierazten dute. Adibidez, gero eta porno gehiago behar badu, erabiltzeko nahia gogaikarri edo kontrolaezin bihurtzen bada, pornoa ikusterik ez duelako ondoeza sentitzen badu, beste jarduera batzuk uzten baditu (lagunak, lana, ikasketak) edo harreman «errealetan» plazer erotikoarekiko sentiberatasunik eza agertzen bada.

Kasu horietan, gomendagarriena psikologo edota sexologo batengana jotzea da, aholkua eta laguntza eskatzeko, beharrezkoa bada.



5.- Gehiago jakiteko baliabideak

Sexo es una palabra divertida (Fiona Smyth eta Cory Silverberg, 2019) edo ***Cuéntamelo todo*** (Katharina von der Gathen eta Anke Kuhl, 2016) liburuek txikienekin sexualitatea nola landu aztertzen dute.

Erika Lust-en ***The porn talk*** gidetan, haur eta gazteei pornoaz nola hitz egin lantzen da; gida honetarako erreferentzia gisa erabili ditugu, eta bere webgunean daude eskuragarri.

Horrez gain, ***Sex Education*** (Laurie Nunn, 2019-...) eta ***Big Mouth*** (Nick Kroll, Andrew Goldberg, Jennifer Flackett eta Mark Levin, 2017-...) telesailak sexualitateari eta haur, gazte eta nerabeekin hitz egiteko gaiei buruzko informazioa ematen dute.

Porn sex vs real sex: the differences explained with food bideo laburrak harreman “errealen” eta pornoko fikziozkoen arteko desberdintasunak ulertzen laguntzen du, eta egokia da nerabezaroaurrean dauden gazte-txoentzat.

Gainera, gure gidak eta familia-eskola kontsulta ditzakezu, honako gai hauei buruz:


- Santacruz, D. (2017). ***Respuestas fáciles a preguntas difíciles***. Madril: Save the Children.
- Bebea, I. (2019). ***Antivirus contra la violencia***. Madril: Save the Children.
- Save the Childreneko Guraso Eskola.
<https://escuela.savethechildren.es/>

Azkenik, zenbait artikulu edo azterlan interesgarri dituzu ondoren, pornografiari buruz gehiago jakin nahi baduzu:

- Gabriel, K. (2017). ***El poder de las culturas del porno. Estado del poder.*** Hemendik hartua: <https://www.fuhem.es/media/ecosocial/file/Estado-del-poder-2017/6.Culturas-del-porno-Estado-del-poder2017.pdf>
- Jaychandran, C. R. (2006). ***Porn rules net revenue charts.*** The Economic Times. Hemendik hartua.
- Ballester-Arnal, R., Castro-Calvo, J., Ruiz Palomino, E., Gil-Juliá, B. eta Giménez-García, C. (2018). ***Sexo, mentiras e Internet.*** Revista INFAD de Psicología, 1.
- Horvath, M., Alys, L., Massey, K., Pina, A., Scally, M. eta Adler, J. R. (2013). ***Basically... porn is everywhere. A rapid evidence assessment on the effects that access and exposure to pornography has on children and young people.*** Office of the Children's Commissioner for England, London (UK).
- Wilson, G. (datarik gabe). ***Start here: evolution has no prepared your brain for today's porn.*** Hemendik hartua: <https://www.yourbrainonporn.com/miscellaneous-resources/start-here-evolution-has-not-prepared-your-brain-for-todays-porn/>

Aurkibidea

- 3 Sarrera
- 6 9 urtetik 12 urtera: pornoaren aurreko lehen esposizioa eta jakin-mina
- 11 12 urtetik 16 urtera: nahitako bilaketa
- 16 16 urtetik aurrera: erabilera eta abusua
- 19 Gehiago jakiteko baliabideak



Mundu osoan haurren eskubideen alde aritzen den lehen mailako erakunde independentea da **Save the Children**. Duela 100 urtetik baino gehiagotik dihardu lanean, haur guztiek **bizirik irauten dutela, ikasi egiten dutela eta babestuta daudela** ziurtatzeko. Gaur egun, 120 herrialdetan baino gehiagotan dihardu erakundeak.

Espanian, haur ahulenak artatzeko programekin lan egiten du, pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden haurrak ardatz hartuta. Horrez gain, haur migratzaileak ere artatzen ditu erakundeak, eta haurrak indarke-riaren aurrean babestea du helburu.

Haur guztiek, haien baldintzak edo jatorrizko herrialdea edozein dela ere, beren eskubideez goatzeko aukera izan dezatela eta ahalik eta gaitasun gehien lor ditzatela nahi du Save the Childrenek.



Save the Children



escuela.savethechildren.es